LAUDIO ikastola
Motxotekale, 16
01400 Laudio
Tel. 94 672 67 37
laudio@ikastola.eus
www.laudioikastola.eus

URTEBETETZEAK LAUDIO TXIKIN

Urtebetetzeak data bereziak dira, urteak betetzen dituenarentzat eta ondoko lagun zein senideentzat ere. Ospakizun errituala bakoitzak bere errealitatera egokitu dezake.



EGUZKIA

Adin talde bakoitzeko eguzki bat izango dugu eta urtebetetze egunean, sarreran jarriko dugu umearen argazkiarekin.

URTEBETETZE EGUNEAN EKARRI BEHARREKO ARGAZKIAK

Familia bakoitzari argazki esanguratsuak eskatuko zaizkio . Umeak betetzen dituen urteen argazki kopuru berbera ekarriko du (1-2-3); ARGAZKI BAT JAIO BERRITAKOA ETA BESTEAK UMEAREKIN BATERA AUKERATUAK. AUKERAKETA HONI DENBORA ESKAINTZEA GARRANTZITSUA DA. Urtebetetze egunean umeak ekarriko ditu Ikastolara argazki hauek (izan daiteke kutxatxo baten barruan ..... zerbait berezi eta inportantea bezala) eta eguzkiaren pintzetan jarriko ditugu.





LAUDIO ikastola
Motxotekale, 16
01400 Laudio
Tel. 94 672 67 37
laudio@ikastola.eus
www.laudioikastola.eus

ERRITUALA

Gustuko dugun leku goxo eta lasai bat topatuko dugu. Bertan, alfonbra baten erdian, sortu dugun EGUZKIA jarriko dugu. Eguzkiaren erdigunean kandela (hainbat urte, zenbat kandela) jarri eta piztuko dugu, eguzkiaren berotasuna eta argia sinbolizatzeko.

Ospakizuneko lagunak lurrean eseriko dira borobil bat osatuz. Urteak betetzen dituen haurra ere borobilean eseriko da.

EGUZKIARI BUELTA

"LURRAK EGUZKIARI BUELTA EMAN DIO ETA _____-k _____ URTE BETE DITU" esango dugu, jaio zen hilabetetik hasita eguzkia inguratuko dugu gure atzamarrarekin (eguzkiari bira emango diogu). Eguzkiari bira bakoitzak urtea irudikatzen du, beraz, eguzkiari birak urteen kopuruaren araberakoak izango dira.

Errituala ixteko, guztion artean abesti bat kantatuko dugu eta haurrak kandelari putz egingo dio (edota lagunduko diogu).

ETXEAN ERE BURUTZEKO ERRAZA

Errirual hau etxean prestatzea oso erraza da: kartoizko borobil bat eta pintzak besterik ez duzue behar izango. Anima zaitezte!!!!!!!